

Donostian, 2001.eko urtarrilaren 23an.

Kaixo, lagun:


Aurten atzerapenarekin egiten bada ere, 2001.ko udal aurrekontuak laster onartuko dituzte. Eta askotan udal aurrekontu hauei duten garrantzia ematen ez badiegu ere, garrantzi hori azpimarratu beharrean gaude. Izan ere, udal aurrekontuetan onartzen dena, urte honetan burutuko diren inbertsio nagusiak (etxebizitza, azpiegiturak, gizarte ekintza, mantenimendua....), Donostiako elkarte eta taldeei eman beharreko dirulaguntzen kopurua, e.a... baita.

Zoritxarrez, honelako erabaki garrantzitsuak udal agintariak hartzen dituzte soilik. Horren aurrean, EHk aurrekontu hauen eratze eta onarpenean ahalik eta donostiar hiritar zein elkarten partehartzerik handiena ziurtatu behar dela defendatzen jarraitzen du. Izan ere, iaz udal gobernu taldeak eremu honetan partehartzea sakontzeko neurriak hartuko zituela esan bazuen ere, ezer gutxi izan da azkenean egin duena.


Hori dela eta, zuengana zuzentzen gatzazkizue berriro ere. Zuengana, zuen iritziak dagozkizuen auzo eta lan eremuetan dauden behar eta lehentasunak guri azaldu eta igorri diezazkiguzuen. Ez dago gure eskuetan zuek igorritako lehentasunak gobernu taldeak onartu eta kontutan hartu ditzan, baina behintzat ahal dugun heinean arituko gara: zuen proposamen eta iradokizunak aztertuko ditugu eta aurkezten diguten aurrekontu proiektuari emendakin moduan proposatuko ditugu. Onartu ditzakete ala ez, baina behintzat horien berri zuzenean izango dute.

Aipatutako proposamen eta ekarpenak ohiko korreoz, korreo elektronikoz eta telefonoz igorri ditzakezue. Bestalde, nahi izanez gero, gurekin aldez aurretik hitzartutako bilera batean proposatu diezazkigukezue. Era berean, idazki honen bitartez, nahi dituzuen galdera, iradokizun edota kezka azaltzeko urte osoan zehar gure ateak zabalik dituzuela azaldu nahi genizueke.

Besterik gabe eta zuen proposamenak jasoko ditugulakoan, jaso ezazue agur bero bat Donostiako Euskal Herritarrokeko udal taldetik.



Donostiako Udaletxea - Ijentea Kalea z/g - 20003 Donostia
Tif: 943 48 10 11 - Fax: 943 48 17 13
eh@donostia.org



Donostia, a 23 de Enero de 2001

Kaixo, lagun:


Aunque este año se haga con retraso, próximamente se aprobarán los presupuestos municipales para el año 2001. Y aunque en muchas ocasiones no damos a estos presupuestos la importancia que tienen, tenemos que recordar que al aprobar estos se aprueban a su vez cuáles van a ser las grandes inversiones durante este año (vivienda, infraestructuras, acción social, mantenimiento..) el importe de las subvenciones a las asociaciones, etc...

Así, y a pesar de que estas decisiones importantes las suelen tomar los gobernantes municipales, desde EH entendemos que dicha decisión tendría que adoptarse con la participación más amplia posible de l@s donostiarras y sus asociaciones. Y aunque el pasado año se mostró por parte del equipo de gobierno municipal la intención de adoptar medidas para favorecer esa participación, lo cierto es que no es mucho lo que se ha hecho al respecto.

Por ello, volvemos a dirigirnos a vosotr@s para que de manera previa nos remitáis cuales son a vuestro parecer las necesidades prioritarias de vuestras zonas o barrios, del ámbito en el que trabajáis o de la ciudad en general. No está en nuestras manos el que esas prioridades sean aprobadas o ni siquiera tenidas en cuenta por el equipo de gobierno municipal pero haremos algo que sí podemos, estudiar esas propuestas y presentarlas con forma de enmienda al proyecto de presupuestos que nos presenten. Puede que las aprueben y puede que no, pero al menos tendrán constancia de las mismas.

Dichas peticiones nos las podéis remitir por correo tradicional, electrónico, por teléfono o si así lo preferís, directamente concertando una reunión con nosotr@s. Así mismo queremos aprovechar para señalaros que estamos a vuestra disposición todo el año para aquellos asuntos, dudas o propuestas que tengáis a bien formularnos.

Esperando recibir vuestras propuestas, un saludo,



Grupo Municipal de Euskal Herritarrok

Donostiako Udaletxea - Ijentea Kalea z/g - 20003 Donostia
Tlf: 943 48 10 11 - Fax: 943 48 17 13
eh@donostia.org